

Jarraipen txostena

2003 urtea



AURKIBIDEA

Or.

1. AURKEZPENA	1
2. EGIKARITUTAKOEN LABURPENA	2
3. IZARTU EGITASMOAREN EGIKARITZE-TXOSTENA	5
3.1. ESKU-HARTZEAREN 2003KO EGIKARITZEA ETA DESBIDERAKETAK	8
3.1.1. Esku-hartzearen finantza-egikaritzea 2002an	8
3.1.2. Programazioarekiko desbideraketak	13
3.2. EGITASMOAREN AURRERAPENAREN BALORAZIOA IKUSPEGI FUNTZIONALETIK ETA LURRALDE IKUSPEGITIK	18
3.2.1. Egitasmoaren Aurrerapena inbertsioa kontuan hartuta	18
3.2.2. Tokiko inbertsio-ahalegina eta jasotako dirulaguntzak	23
3.2.3. Egitasmoaren balorazioa ikuspegi oso batetik	25
3.2.4. Egitasmoa aurreratzen laguntzeko neurriak	28
4. HIRIA SUSPERTZEKO PROZESUEN AURRERAPENAREN TXOSTENA	31
4.1. AURRERAPENA HELBURUETAN: INBERTSIOA ETA EGINDAKOAK	35
4.2. HIRIA SUSPERTZEKO PROZESUETAKO EMAITZAK	39
4.2.1. Lurralde integrazioa, irisgarritasuna eta hiri kohesioa hobetzea	39
4.2.2. Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia Berriak sartzea	42
4.2.3. Ingurumena eta andeatutako inguruak berreskuratzea	43
4.2.4. Ekonomi jarduera sustatzea: enpresa berriak eta enplegua	47
4.2.5. Enpresariak, ETEak, turismoa eta udal ondarea babestea	49
4.2.6. Hiria ingurua, itxura eta kalitatea hobetzea. Urbanizazio-lanak eta gaiberritzeko proiektuak	51
4.2.7. Udalerrak gizarte, kultura eta jolaserako hornikuntza eta zerbitzuz hornitzea	55
4.3. LURRALDE KOHESIOAN ETA KOHESIO EKONOMIKO ETA SOZIALEAN IZANDAKO ERAGINA	58

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

Or.

3. IZARGU EGITASMOAREN EGIKARITZE-TXOSTENA

1 grafikoa: IZARTU egitasmoetan aurkeztutako proiektuen azterketa onuradun diren eskualdeen arabera. 2003 urtea.....	7
2 grafikoa: 2003an egindako gastua urte horretarako programazioarekiko.....	8
3 grafikoa: Esku-hartze eremuak. 2003an egindako inbertsioa urte horretarako gastu-aurreikuspenetara egokitzearen maila	10
4 grafikoa: Eskualdeak. 2003an egindako inbertsioa urte horretarako gastu-aurreikuspenetara egokitzearen maila	12
5 grafikoa: Proiektuak. Desbideraketak programazioarekiko. 2003. urtea.....	13
6 grafikoa: 2001-2003 epean egindako gastua, inbertsio guztiarekiko.....	18
7 grafikoa: 2001-2003 egindako inbertsioaren ibilbidearen erkaketa.....	18
8 grafikoa: Esku-hartze eremuak. 2001-2003 epean egindako gastua inbertsio osoarekiko.	20
9 grafikoa: Eskualdeak. 2001-2003 epean egindako gastua inbertsio osoarekiko.: .	22
10 grafikoa: Izartu Egitasmoaren ibilerarekiko gogobetetzearen balorazioa	25
11 grafikoa: Izartu Egitasmoari laguntza tekniko emateko gastua 2001-2003 epean	28
12 grafikoa: Laguntza teknikoaren jarduketa nagusiak 2003 urtean zehar	29
13 grafikoa: 2003. urtean Izartu egitasmoetan erabilitako komunikazio, informazio eta zabalkunde bitartekoak	30

4 KAPITULUA. HIRIA SUSPERTZEKO PROZESUEN AURRERAPENA

14 grafikoa: Izartu Egitasmoko proiektuen sailkapena helburu orokorren arabera	32
15 grafikoa: Kohesio-helburu orokorrak. 2001-2003 aldian egindako gastua inbertsio osoarekiko.	36
16 grafikoa: Kohesio-helburu orokorrak. Egindako jarduketak, aurreikusitako jarduketa guztiekiko.....	37
17 grafikoa: Kohesio-helburu orokorrak. Aurrerapena eskualdeka, egindakoak kontuan hartuta	38

<i>18 grafikoa: Lurralde integrazioa. Aurrerapena jarduketa-tipologiaren arabera. 2001-2003.</i>	40
<i>19 grafikoa: Lurralde integrazioa. Aurrerapena lurraldeka eta eskualdeka. 2001-2003.</i>	40
<i>20 grafikoa: Informazioaren eta Komunikazioen Teknologia Berriak. Aurrerapena jarduketa-tipologiaren arabera. 2001-2003.</i>	42
<i>21 grafikoa: Informazioaren eta Komunikazioen Teknologia Berriak. Aurrerapena lurraldeka eta eskualdeka. 2001-2003.</i>	42
<i>22 grafikoa: Ingurumena. Aurrerapena jarduketan tipologiaren arabera. 2001-2003.</i>	44
<i>23 grafikoa: Ingurumena. Aurrerapena lurraldeka eta eskualdeka. 2001-2003.</i>	44
<i>24 grafikoa: Ekonomi jarduera. Aurrerapena, jarduketa-motaren arabera. 2001-2003.</i>	47
<i>25 grafikoa: Ekonomi jarduera. Aurrerapena lurraldeka eta eskualdeka. 2001-2003.</i>	47
<i>26 grafikoa: ETEak, turismoa eta ondarea. Aurrerapena, jarduketa-moten arabera. 2001-2003.</i>	49
<i>27 grafikoa: ETEak, turismoa eta ondarea. Aurrerapena, lurraldeka eta eskualdeka. 2001-2003.</i>	50
<i>28 grafikoa: Kalitatea eta hiri ingurunea. Aurrerapena, aritze-moten arabera. 2001-2003.</i>	52
<i>29 grafikoa: Kalitatea eta hiri ingurunea. Aurrerapena, lurraldeka eta eskualdeka. 2001-2003.</i>	52
<i>30 grafikoa: Hornikuntzak eta zerbitzuak. Aurrerapena, aritze-motaren arabera. 2001-2003.</i>	34
<i>31 grafikoa: Hornikuntzak eta zerbitzuak. Aurrerapena, lurraldeka eta eskualdeka. 2001-2003.</i>	35

TAULEN AURKIBIDEA

Or.

1 taula: IZARTU egitasmoetan aurkeztutako proiektuen azterketa, beren esku-hartze eremuen arabera. 2003 urtea.	6
2 taula: IZARTU egitasmoen baitan amaituriko proiektuen azterketa esku-hartze eremuen arabera. 2003. urtea.	27

1. AURKEZPENA

Izartu 2001-2005 Egitasmoaren *2003 urteko Jarraipen Txostenak* hiria suspertzeko 51 egitasmo integralek ekimen honek babesturik izan duten garapena laburtzen du. Halaber, *tarteko epe* dei genezakeen denboraldi honetan 48 udalerri onuradunek lurralde-egituraketan eta egituraketa sozial eta ekonomikoan izan duten aurrerapenaren emaitzarik nabarmenenak jasotzen ditu.

Hemen aurkezten den txostenaren xedea zehaztutako ekitaldian izandako egikaritzearen berri ematea eta zehaztea da, eta lehenengo hiru urte hauetan egindako ahaleginaren ikuspegi orokorra ematea, hau da, metatutako aurrerapena, lortutako emaitzak eta eraginak. Txostenaren informazioa egitasmoen tokiko arduradunek berek 2003ko Egikaritzearen Urteko Txostenean emandako datuetan oinarrituta dago.

Aurreko urteetan bezala, egikaritutakoaren laburpena ez ezik, *Jarraipen Txostenak* bi kapitulu nagusi ditu. Lehenengo kapituluak, Izartu Egitasmoaren Egikaritze Txostenean, azterketa teknikoa egiten da: aurreikuspenak nola garatzen diren egitasmoen benetako aurrerapenarekiko; esku-hartzearen egikaritzea, eta azken batean ekimen honen bilakaera, kontuan hartuta sailkapen funtzionala -Ardatzak eta Neurriak- eta lurralde sailkapena -eskualdeak eta udalerriak-. Txosten horretan deskribatuko diren alderdiei dagokienez, esku-hartzearen finantza-egikaritzea, bere programazioarekiko aldaketak edo desbideraketak, hartutako irtenbideak eta arrazoiak, udalerrien eta lehentasunezko ardatzen aurrerapen-egoera, beste diru-laguntza batzuk jasotzea, laguntza teknikoaren erabilera eta Egitasmoaren publizitatea bermatzeko hartutako neurriak dira.

Bigarren kapituluak, Hiria suspertzeko prozesuen aurrerapenaren txostenak, egitasmoek aldatu nahi duten errealitateari egiten dieten ekarpena aztertzen du, hau da, egindako jarduketak eta Izarturen pean batera finantzatutako proiektuetako bakoitzean lortutako emaitzak. Ekimenak 2003 ekitaldia ixterakoan zuen aurrerapena eta lortutako eraginak Egitasmoaren zazpi helburu orokorrak kontuan hartuta erakutsiko dira. Kapituluaren ataletan honakoak deskribatuko dira: aurreikusitako egikaritzeetan izandako aurrerapena, lortutako emaitzak eta horren eragina bere eragin-eremuetako lurralde, gizarte eta ekonomi mailako kohesioaren hazkundean.

2. EGIKARITUTAKOEN LABURPENA

2003 ekitaldiak mugarri garrantzitsua ezarri du Izartu egitasmoek beren helburuen lorpenean izandako aurrerapenean. **Inbertsioaren ia erdia egikarituta**, hau da 102.5 milioi euro (guztiaren %46), **proiektuak abian jartzea atzerarazten zuten oztopo nagusiak gainditu dira urte honetan zehar**, eta **urteko programazioaren %80tik gorako betetze-maila lortu da**.

Egitasmoaren garapenak, batez ere 2003 urtekoak (soilik urte honetan orain arte metatutako gastuaren erdia egikaritu da), **balantze positiboa erakusten du udal gehienentzat**. Tokiko arduradunek azpimarratzen dute egitasmoak egikaritzeko **erritmoa azkartu egiten dela horiek aurrera egiten duten neurrian**. Horrek agerian jartzen du onuradunek suspertze-prozesuak ongi bideratzeko egin duten apustua eta benetako konpromisoa. Halaber, **eskertu egiten dute ekimenaren malgutasuna**, izan ere **aukera ematen du uneoro aurreikuspenak proiektuen benetako abiadurara egokitzeko**.

Nolanahi ere, **inbertsio-erritmoa ez da berdina izan udalerri edo esku-hartze eremu guztietan**. Neurririk aurreratuenak 1 ARDATZEAN -*Ekoizpen ingurunea eta enplegua*- eta 2 ARDATZEAN -*Tokiko Oinarrizko Azpiegiturak*- sartutakoak dira; horiek aurrekontu ekonomikoaren zati handiena hartzen dutenez, Egitasmo osorako aurrerapena zehazten dute. Bestalde, nahiz eta 2003 urtean zehar beren egikaritze-aurreikuspenak gainditu egin dituzten proiektuak ugariagoak izan -aurreko urteetako metatutako atzerapenak gainditu dituzte-, **oraindik ere badira hainbat egitasmo "geroratu" egin direnak**, administrazio edo erakunde publiko edota pribatuekiko elkar-mendekotasuna dela-eta **beharrezkoak dituzten baimenak lortzeko zain**.

Lurralde historikoka izandako aurrerapenari dagokionez, datuek ez dute aldatu aurreko urteetan ikusten ari ginen ibilbidea. **Gipuzkoa da herrialderik aurreratuena**, inbertsio guztiarekiko %48ko gastu metatua du; horren **atzean Bizkaia dago**, %44, eta **azkenik Araba**, %28. Eskualdeka, aurreratuenak *Bidasoa Behera, Bilbao, Durangaldea, Tolosa, Enkarterriak, Goierri, Plentzia-Mungia, Hego Uribe* eta *Debabarrena*; horietako batzuek, proiektuak amaitu gabe, gainditu egin dituzte Egitasmo osorako inbertsio-aurreikuspenak, Izarturekiko toki-mailako konpromiso ekonomikoa baino askoz ere ahalegin handiagoa bere eginez.

Inbertsio-bolumen nabarmen horrekin batera aurreikusitako zeregin gehiago egin dira. Hori horrela, **Etxebarriz gain -horrek iaz amaitu zuen-, Bilbao Otxarkoagako eta Ermua udalerriko egitasmoak ere 2003 urtean zehar bete dira, eta beren egitasmo osoa lortzetik hurbil daude Irun, Legazpi, Zegama, Bilbao Zaharra eta Gueñes.** Eraitza horiei erantsi behar zaie 30 Izartu egitasmotan onuradunen %60k proiekturen bat edo batzuk amaituta dituztela zehaztutako ekitaldiaren bukaeran; gauzak horrela, saldoak erakusten du **Izartun sartutako jarduketa guztien herena amaituta dagoela 2003ko abenduaren 31n.**

Ildo horretan, **hiria suspertzeko hasitako prozesuen emaitzak nabaritzen hasi dira.** Izartu Egitasmoaren jarduketaren batean parte hartu edo horren onura jaso duten biztanleen kopurua 321.000 biztanle ingurukoa da gaur egun. Ekimenaren erdian, egindako zeregin nagusiak eta horien emaitzak honako hauek dira:

➤ Erabilera publikorako prestatutako eremua	76.586 m ²
➤ Natur ingurunean edo hiri-inguruan andeatutako arloak berreskuratzea, hala nola parkeak eta berdeguneak	157.000 m ²
➤ Bideak eta sarbide berriak hobetzea (oinetakoak eta ibilgailuen trafikoa)	161.062 m ²
➤ Kaleak, galtzadak eta auzoak berriz urbanizatzea	50.596 m ²
➤ Hornidura eta zerbitzu sareak berritzea	31.145 m lineal
➤ Egoitza eraikinak eta eraikin bereziak birgaitzea	211 ut.
➤ Ekonomi jarduera gauzatzeko azalera	15.000 m ²
➤ Enplegurako prestakuntza, aholkularitza eta orientabidea emateko eta ekintzaileei babesa emateko ekimenak.	40 ekimen
➤ Onuradunak.	4.000 onuradun
➤ Turismoarako gertaerak	55 gertaera
➤ Interesguneak sortzea turistak erakartzeko	6 interesgune
➤ Onuradunak.	60.000 turista
➤ Ekipamendu komunitarioak eta gizarte, kultur, laguntza eta ingurumen arloko zerbitzuak, eta IKTak sustatzea.	20 ekipamendu
➤ Erabiltzaileak	25.000 erabiltzaile

Lurralde, ekonomi eta gizarte mailako kohesioaren hazkundearen gaineko ekintza horiek beren eragin esparruetan duten eragina, eta ondorioz EAE osoan duen eragina, espero izandako emaitzak gainditzen ari da, eta amaitutako proiektuetatik eragin biderkatzaileak lortu dira degradatutako gune horietako biztanleengan eta ekonomi jardueraren gain:

- Hiri bilbe egituratuagoa eta irisgarriagoa lortzea.
- Biraketa positiboa eman zaio herri eta hiri askoren itxurari eta bertako biztanleen ongizate eta bizi-kalitateari eragiten dieten erakargarritasun sozioekonomikoei eta hiri-baldintzei.
- Ingurumenaren kalitatea eta ondorioz bizi-kalitatea hobetzeko, hiria biziberritu den sentrazio orokorra.
- Negozio-aukera berrien erakargarritasuna eta sustapena. Aukera horiek tokiko hazkunde ekonomiko positibo baten arrakastarako faktore nagusi bihurtzen ari dira.
- Informazioaren Gizartearen eta jarduera-sektore berrien aukeren ezaugarak enpresen, enpleguaren eta enplegatzeke ahalmenaren gainean dituen ondorio positiboak.
- Aukera-berdintasunaren hazkundera biztanle guztien giza eta gizarte mailako garapenerako eta batik bat behar handiena duten kolektiboentzako.

3. IZARTU EGITASMOAREN EGIKARITZE-TXOSTENA

Kapitulu honetan Izartu egitasmoak egikaritzearen garapena jorratuko da, eta, horrekin batera, egitasmo horiek esku-hartze eremu bakoitzari ezarritako helburuen lorpenean eta Hiria Suspertzeko Egitasmo Osoaren lurralde onuradunetako bakoitzean lortutako aurrerapen-maila jorratuko da

Hortaz, sailkapen funtzionalari -Ardatzak eta Neurriak- eta lurralde mailako sailkapenari -Eskualdeak eta Udalerriak- jarraiki egindako azterketa tekniko bat da, eta bertan aztertzen da 50 egitasmoetan plangintzaren aurreikuspenak nola garatzen diren (Etxebarriko Izartu Egitasmoa 2002an amaitu zen), **esku-hartzearen egikaritzea eta azken batean ekimen honen bilakaera**. Horren bitartez, Egitasmoaren arduradunei aukera eman nahi zaie, aurreko urteetan bezala, plangintzak dakarren bitarteko teknikoa egitasmoak uneoro zerbitzatu behar duen errealitateari etengabe egokitzeko.

Gogorarazi behar da, ildo horretan, sailkapen funtzionalak IZARTU egitasmoek esku-hartze orokorretan (5 ARDATZ) eta zehatzetan (20 NEURRI) aurkeztutako jarduketaren multzo homogeneoa hartzen duela ardatz, eta horren xedea laguntzen aplikazio orokorraren jarraipena eta azterketa erraztea dela. Bestalde, lurraldekako sailkapenak Egitasmoaren onuradun diren eskualdeak hartuko lituzke, hau da 48 udalerri, EAE osoan banatuak, hiru lurralde historikoak hartzen dituztela: Araba-Kantauri Arabarra-, Bizkaia - Hego Uribe, Arratia-Nerbioi, Bilbao, Durangaldea, Enkarterriak, Gorkina-Bermeo, Eskuinaldea, Ezkerraldea, Markina-Ondarru, Plentzia-Mungia eta Txorierri- eta Gipuzkoa - Bidasoa Beherea, Debabarrena, Donostia, Ekialdea, Goierri eta Tolosa-.

Aurreko urteekiko lehenengo aldaketa jarraipena egin behar zaien proiektuen kopurua txikiagoa izatea da. Egikaritzea 2002an amaitu zuten proiektuez gain (horiek kontatzen jarraituko dugu finantza-egikaritzearen zenbaketa orokorraren ondorioetarako), aldaketa hori kasu gehienetan honako arrazoi hauei zor zaie: gehienetan, bateratu egin diren egitasmoetan sartutako jarduketaren kudeaketa errazteari, eta beste batzuetan, dauden beste proiektu batzuen aldean horiek lehentasunik izatearen edo bideragarriak ez izatearen ondorioz egitasmo horiek ezeztatzeari, geroago ikusiko dugun moduan.


Hori horrela, 2002 urtean 368 proiektu genituen; **2003 ekitaldian, berprogramaketen ondorioz, guztira 350 proiektu sartu ziren Izartu egitasmoaren pean finantzatuak.** Zenbateko txikiago horrek ez du alde handia adierazten jarduketan ardatz eta neurrikako banaketarekiko; jarduketak gehiago dira oraindik ere **2 ARDATZEAN Tokiko Oinarrizko Azpiegiturak, 2.5 neurria Antolamendu eta Birgaitze Azpiegiturak.**

1 taula: IZARTU egitasmoetan aurkeztutako proiektuen azterketa, beren esku-hartze eremuen arabera. 2003 urtea.

ARDATZAK ETA NEURRIAK	2003 URTEA PROIEKTUAK	
	Kop.	%
1 ARDATZA. ENPLEGUA ETA EKOIZPEN INGURUA	33	%9
1.1. Jarduerari laguntzeko azpiegituren sorkuntza eta garapena	11	%3
1.2. Ekoizpen azpiegituraren sorkuntza eta garapena	4	%1
1.3. Babesa enpresariei, enpresa txiki eta ertainei eta artisau enpresei	8	%2
1.4. Toki sustapena, turismoa eta ondarea	10	%3
2 ARDATZA. TOKIKO OINARRIZKO AZPIEGITURAK	255	%73
2.1. Garraio azpiegiturak	21	%6
2.2. Telekomunikazio eta Informazioaren Gizartea Azpiegitura	6	%2
2.3. Azpiegitura energetikoa	1	%0
2.4. Ingurumen azpiegitura	25	%7
2.5. Antolamendu eta Birgaitze azpiegiturak	151	%43
2.6. Gizarte eta Osasun azpiegitura	11	%3
2.7. Aisialdi eta Kultura azpiegitura	38	%11
2.8. Hezkuntza eta Prestakuntza azpiegitura	2	%1
3 ARDATZA. GIZA BALIABIDEAK ETA GIZARTERATZEA	31	%9
3.1. Lan merkatuaren politikak	8	%2
3.2. Gizarteratzea	9	%3
3.3. Aukera berdintasuna	8	%2
3.4. Hezkuntza eta prestakuntza	6	%2
4 ARDATZA. TOKIKO OINARRIZKO EGITUREN SORKUNTZA ETA GARAPENA	8	%2
4.1. Tokiko oinarrizko zerbitzuak	7	%2
4.2. Herritarren segurtasuna	-	-
4.3. Hezkuntza eta prestakuntza zibikoa	1	%1
5 ARDATZA. BESTE BATZUK	23	%%
5.1. Laguntza teknikoa	23	%7

Aurretik bereiz zeuden kontzeptuak edo faseak bateratzeagatik proiektuen zenbatekoan murrizketa handiagoa jasan duten eskualdeak Kantauri Arabarra eta Ezkerraldea dira. Donostian eta Gernika-Bermeon, ordea, proiektuen zenbatekoa murriztea hainbat jarduketa ezeztatzearen ondorio da.

1 grafikoa: IZARTU egitasmoetan aurkeztutako proiektuen azterketa onuradun diren eskualdeen arabera. 2003 urtea.



Hurrengo ataletan 350 proiektuen azterketa teknikoa egingo dugu, aurreko sailkapenei jarraiki eta honako alderdi hauek kontuan hartuta:


- Esku-hartzearen egikaritzea 2003an, eta aldaketak programazioarekiko: arazo garrantzitsuak, arrazoiak eta hartutako erabakiak.
- Egitasmoaren aurrerapenaren balorazioa ikuspegi funtzionaletik eta lurralde-ikuspegitik. Lehentasunezko ardatzen garapena eta laguntza-neurrien erabilera.

3.1. ESKU-HARTZEAREN EGIKARITZEA 2003AN ETA DESBIDERAKETAK**3.1.1. ESKU-HARTZEAREN FINANTZA-EGIKARITZEA 2003AN**

50 Izartu egitasmoetan 2003. urtean egikaritutako gastua 53.798.361€-koa da, aurreko urteetako zenbatekoa baino askoz ere inbertsio handiagoa, 14.171.120€-koa izan baitzen 2001. urtean eta 34.528.031€-koa 2002an. Datu horrek adierazten du udalek inbertsio-ahalegin nabarmena egin dutela 2003an. Izartu ekimenaren epealdiaren erdian kokaturik (2001-2005), Egitasmo osorako aurreikusitako inbertsioaren erdira iristen dira urte honetan zehar.

Ildo horretan, onuradunek berek egindako gastuaren programaketa proiektuetan benetan egindako inbertsioaren martxara doitu da hein handi batean. Aurreko ekitaldietan finantza-egikaritzeak ez zuen aurrekontu-plangintzan sartzen ziren zenbatekoen %50 gainditzeko, eta 2003 urteetan, aldiz, aurreikuspenak ia erabat bete dira eta epe horretarako programatutako gastuaren %80 baino zerbait gehiago egikaritu da, 65.636.033€.

2 grafikoa: 2003an egindako gastua urte horretarako programazioarekiko.



Bestalde, inbertsio-erritmoa ez da berdina izan udalerrri edo esku-hartze eremu guztietan; batzuetan oraindik oso atzeratuta jarraitzen dute;egoera hori, dena dela, arindu egin da proiektu askok izan duten aurrerapen handiaren ondorioz, proiektu asko aurten amaitu baitira, eta gainera horien inbertsio errealak hasierako aurreikuspenak gainditu ditu.

Emitza horiei dagokienez, esan behar da horien ekarpen nagusia oztopo eta desbideraketen azterketa orokorra dela, izan ere aurreikuspenei egokitzeko mailak ez du egitasmoen aurrerapenaren errealitatea erakusten; gerta liteke proiektu bat bere programaketari egokitzea eta oso finantza-egikaritze eskasa izatea.


Hori horrela, esku-hartze eremuetako aurreikuspenetara egokitu izanaren mailari dagokionez, ikusten dugu programaketara egokitzeko zailtasun handienak dituzten proiektuak 3 eta 4 ARDATZetan sartutakoak direla, batez ere neurri hauetan sartutakoak: 3.4. Hezkuntza eta prestakuntza, 3.2. Gizarteratzea eta 4.1 Tokiko oinarritzko zerbitzuak eta 3.3. Aukera-berdintasuna. Bestalde, gehienak Izartu egitasmoen barruan garrantzitsuenak diren proiektuetarako osagarriak diren jarduketak dira, eta horien inbertsioa (neurri horietan sartutako proiektu guztien batuketa) ekimen osorako aurrekontuaren %5era besterik ez da iristen. Halaber, atzerapen handia erakusten dute beren programaketarekiko honako neurri honetan sartutako 11 proiektuek: 2.6. Gizarte eta Osasun azpiegitura. Horiek, hala ere, beren programaketarekiko egikaritutako gastuaren %50 gainditu dute.

Aldiz, 2 ARDATZean eta 1 ARDATZean sartutako jarduketek oso maila handia dute beren urteko plangintzari egokitzeari dagokionez; askotan 2003 ekitaldirako programatutako inbertsioa gainditzen dute. Horixe gertatzen da, era berean, neurri hauetan sartutako proiektuei dagokienez: 1.2 *Ekoizpen azpiegituraren sorkuntza eta garapena*, 2.2 *Telekomunikazioa eta Informazioaren Gizartea azpiegitura*, 2.7 *Aisialdi eta Kultura azpiegitura* eta 2.4 *Ingurumen azpiegitura*. Halaber, 3.1 *Lan merkatuaren politikak* neurrian eta 4.3 *Hezkuntza eta prestakuntza zibikoa* neurrian ere gainditu egin dira aztertutako eperako aurrekontu-aurreikuspenak. Egikaritutako gastuaren superabit hau behar den neurrian hartu behar da, izan ere desbideraketen arrazoiak aztertzean ikusiko dugun moduan askotan arrazoiak hau izaten da: aurreko urteetako aurrekontu-egikaritzean metatutako atzerapena, edo udal korporazioak inbertsio-ahalegin askoz ere handiagoa hartzea, Izartu ekimenaren baitan proiekturako aurreikusitako inbertsioari egozterik ez dagoena.

Beren urteko aurrekontua gainditu duten haietaz gain, 1 eta 2 ARDATZetan sartutako gainerako neurrietan plangintzarekin bat etorri izanaren maila handia da; hori horrela, proiektu gehienak eta inbertsio bolumen handiena hartzen dituztenez, 2003 eperako egikaritze-maila handia zehazten dute.

Hurrengo taulak eta grafikoak aurreikuspenen garapena erakusten dute benetan egikaritu denarekiko.

3 grafikoa: Esku-hartze eremuak. 2003an egindako inbertsioa urte horretarako gastu-aurreikuspenetara egokitzearen maila



Lurralde ikuspegitik, egitasmoek lurraldeka eta eskualdeka duten aurrerapena ere ezberdina da. Arabako Lurralde Historikoak, Kantaurre Arabarra eskualdea soilik hartzen duena, bere programaketarekiko aurrekontu-egikaritzetik txikiena duen eskualdea da, %61 hain zuzen. Gipuzkoa eta Bizkaia antzeko mailetan kokatuko lirateke, plangintzarekiko egokitze-maila %80koa duela, salbuespen batzuekin bada ere.


Gipuzkoan, egikaritzearen batez bestekoa, programatutako gastuarekiko, %200etik gorakoa da Bidasoa Beherea kontuan hartzen badugu. Irun udalerria soilik hartuta, 2003 ekitaldirako aurreikusitako inbertsioa ia %800 gainditu du. Zenbateko hori egiazkoa bada ere, zehaztutako helburuak lortzeko Irungo Izartu Egitasmoak hasieran aurreikusitako inbertsioak Izarturen baitan begietsitakoak baino askoz ere handiagoak ziren. Hori horrela, urtez urte askoz ere gastu handiagoari egiten diote aurre beren baliabideez.

Gauzak horrela, eskualde hori alde batera utzita, onuradunek berek egindako gastu-programazioari begira Gipuzkoarako egikaritze-batez bestekoa %76koa da. Lurralde horretan, *Goierriko* eskualdeak (%107ko egikaritzea programatutako gastuarekiko), *Tolosak* (%93) eta *Ekialdeak* (%78) zenbateko hori gainditu egiten dute, eta *Debabarrena* (%67) eta *Donostia* (%37) horren azpitik geratuko lirateke. Gipuzkoako eskualdeen barruan onuradunen jokabidea ezberdina da. Irungo udalerriaz gain, 2003 ekitaldirako aurrekontu-aurreikuspenak gainditzeko dituzte Deba, Mendaro, Errenteria, Lezo-Oiartzun, Legazpi eta Zegamako egitasmoak. Beren programaketa maila handian betetzen dute, ia %100, Tolosako, Ordiziako, Donostia-Altzako eta Soraluzeko egitasmoak. Aldiz, 2003 ekitaldirako beren aurrekontu-plangintzatik desbideratzen dira Eibar (%3), Elgoibar (%4), Mutriku (%53), Donostia-Loiola (%2), Pasaia (%10), Urretxu (%19) eta Zumarragako (%25) egitasmoak.

Bizkaiko Lurralde Historikoan, programatutako gastuarekiko %80ko egikaritze-batez bestekoa duela, eskualde eta udalerriko jokabidea ere ezberdina da. Urte horretan beren inbertsio-aurreikuspenak gainditu dituzten eskualdeen artean hauek daude: *Hego Uribe, Bilbao, Enkarterriak* eta *Plentzia-Mungia*. Durangaldeak eta Markina-Ondarruk %100 inguruko betetze-ehunekoa dute. Nolanahi ere *Markina-Ondarruri* dagokionez ehunekoa horrek ez du bere egitasmoaren aurrerapena adierazten, izan ere, aurrerago ikusiko dugun moduan, gutxi aurreratu da. *Arratia Nerbioi* (%19), *Gernika-Bermeo* (%56), *Eskuinaldea* (%28), *Ezkerraldea* (%49) eta *Txorierri* (%57) batez bestekoaren azpian kokatzen dira beren programaketaren betetze-mailari dagokionez.

Adierazi behar da lurralde honetan gehiago direla beren gastu-aurreikuspenak gaintitu dituzten udalerriak beren aurreikuspenetara iritsi ez direnak baino. Hori horrela, programatutakoa baino gastu handiagoa egikaritu dute Arrigorriaga, Basauri, Galdakao, Bilbao Zaharra eta Bilbao Otxarkoaga, Ermua, Karrantza, Balmaseda, Gordexola, Gueñes, Muskiz, Portugalete Azeta eta Mungiako egitasmoek. Plangintzari egokitu izanaren maila handia dute Berrizek, Bermeok, Barakaldo Lutxanak, Santurtzik, Sestaok, Trapagak, Ondarruk eta Loiuk. Aldiz, beren plangintzarekiko gutxien egokitu diren egitasmoak hauek dira: Urduña (%19), Zaldibar (%0), Gernika (%43), Leioa (%28), Alonsotegi (%38), Barakaldo Gurutzeta (%6), Ortuella (%1), Portugalete San Roke (%12) eta Erandio (%56).

4 grafikoa: Eskualdeak. 2003an egindako inbertsioa urte horretarako gastu-aurreikuspenetara egokitzearen maila




3.1.2. PROGRAMAZIOAREKIKO DESBIDERAKETAK

Aurreko ataletik ondorioztatzen da 2003 urtean zehar programazioarekiko desbideraketa gutxiago gertatu direla aurreko urteetan baino, eta ekitaldi honetan horietako askok zerikusia izan dutela aurrekontu-plangintzan eskatutako inbertsio-ahalegin handiagoarekin.

Laguntza teknikoko jarduketak kontuan hartu gabe, 129 proiektu beren aurreikuspenen arabera gauzatu dira, hau da guztien %40. Aldaketak jasan dituzten proiektuei dagokienez, urte horretarako programazioarekiko egikaritutako aurrekontuaren superabitari dagokio %23. Hortaz, 2003an zehar proiektuen %37k baino gutxiagok egin dute gastu txikiagoa edo inolako gasturik ez beren programaketarekiko; eta 2002 urtean, berriz, hori proiektuen erdiei baino gehiagori gertatu zitzaien, %54ri.

5 grafikoa: Proiektuak. Desbideraketak programazioarekiko. 2003. urtea.



Ezarritako helburuen betetze-maila handiago hau, onuradunek berek adierazten duten moduan, proiektuak gehiago aurreratzea eragozten zuten oztopo asko gaingitu izanari zor zaio nagusiki. Oztupo horiek gaingitu dira, hain zuzen, bai arazozen arrazoiak desagertu egin direlako, edo oztopoak konpontzeko beste aukera batzuk bilatu direlako. Horixe da aurreko ekitaldietan ia geldirik egon ondoren 2003. urtean jauzi garrantzitsua eman duten egitasmoen kasua: Donostia-Altza, Galdakao, Bermeo, Barakaldo Lutxana eta Muskiz. Askotan egitasmo horiek berriz programatu dira eta jarduketak ezeztatu edo inbertsio eta lehentasun hurrenkera berria ezarri da.

Aurreko urtean egindakoaren aldean ahalegin handia egin dute, halaber, beren plangintzarekiko zertxobait atzeratuta zeuden beste egitasmo batzuek, hala nola: Deba,

Mendaro, Legazpi, Arrigorriaga, Basauri, Bilbao Otxarkoaga, Ermua, Gueñes eta Mungia. Horien egitasmoek bat egiten dute aipatutako urtean programatutakoa baino gastu handiagoa izan duten proiektuekin. Hortaz, finantza-egikaritze handiago horren arrazoiak, beraiek adierazten duten moduan, aurreko urteetako egikaritzean metatutako atzerapenari lotzen zaio.

Errenteriak, Lezo-Oiartzunek, Bilbao Zaharrak eta Karrantzak ere planifikatutakoa baino inbertsio handixeagoak izan dituzte, eta normalean, aurreikusitakoa baino inbertsio-ahalegin edo kostu handiagoa duten proiektuei zor zaie; batzuetan berriz programatuko dira, lehentasun txikiagoa edo kostu txikiagoa duten beste jarduketa batzuen aurrekontua bideratzeko, eta beste batzuetan toki korporazioaren beraren baliabideen baitan hartuko da. Gordexola eta Irungo udalerriek gastu-superabitak erakusten dituzte programazioarekiko, eta, beren egitasmoen hasieratik, obrak finantzatzeko aurrekontuak Izartuk aurreikusitakoak baino askoz ere handiagoak hartzen dituztela erakusten dute. Hortaz, egotzitako ordainketa ekonomikoa programazioan aitortutakoa baino askoz ere handiagoa izan ohi da.

Atal honen xedea ez bada ere, desbideratze ekonomiko positibo edo negatiboak ardatz hartzean, **aipamen berezia egin behar zaie Ekimenean parte hartzeko ibilbidean horientzat aurreikusitako plangintza neurri handiangoan betetzen duten egitasmoei.** Horixe gertatzen da Mutrikun, Soraluzen, Ordizian, Zegaman (ia amaitua), Tolosan, Etxebarrin (2002an amaitu zuen), Berrizen eta Balmasedan. Zenbaitetan atzerapen handiagoa edo txikiagoa izanik -oro har benetako aurrerapena zein izango den hainbesteko zehaztasunez planifikatzea zaila izaten delako-, egitasmo hauek 2002tik, eta batzuek 2001etik, ezarritako bideari jarraitzen zaizkio.

Balantzaren beste aldean aurreratu gabe jarraitzen duten proiektuak daude. Horietan gehixeago geldituko gara, egoera horren arrazoiak sakontzeko. **Guztira 54 proiektutan, Egitasmoa jarduketa guztien %16, ez da gasturik antzeman Izarturen hasieratik.** Proiektu horietatik batzuk dagozkien udalerriek ez dute gainera jarduketetan egikaritze-zailtasun handirik erakusten, baina beste proiektu asko, ordea, hasieratik eta beren osotasunean atzerapen-egoeran dauden egitasmoetan sartzen dira.

Horixe gertatzen da Izartu egitasmoan Eibarren (bere egitasmoaren inbertsio osoaren %3 egikaritu du), Donostia-Loiolan (%1), Pasaian (%11), Zumarragan (%1), Urduñan (%2), Zaldibarren (%6), Barakaldo Gurutzetan (%5), Urtuellan (%3), Portugalete San Roken (%3)

eta Ondarroan (%6). Askotan izaten duten atzerapenaren arrazoia egitasmoetan sartuta dauden administrazio edo erakunde publikoek eman beharreko baimena falta izatea da:

- *Hori horrela, Pasaiaiko Egitasmoa Navalaldearen garapenaren eta Portu Agintaritzak lurrak ematearen menpe dago, eta jarduketa hori Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak zuzentzen dute.*
- *Eibarren, atzerapena hainbat espediente administratibo behin betiko onesteari zor zaio, eta horiek onestea udalaz gaindiko administrazioen eskumena da (Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundia).*
- *Portugalete San Rokeko egitasmoa dokumentu teknikoak idaztearen zailtasunek oztopatzen dute. Horren arrazoia, funtsean, aurreikusitako lanek metroaren 2 lineari eragiten diotela da. Eta Barakaldo Gurutzetako egitasmoan hainbat aldaketa egin dira, Bizkaiko Foru Aldundiak eskatuta, foru-errepideari eragiten diolako.*
- *Urtuellan atzerapena arrazoia hau da: akordioa behar dela RENFERen eta Herri Lan Ministerioaren artean Proiektua baimentzeari dagokionez.*
- *Zaldibarrek ere hainbat erakunderen baimenen zain eta beharrezko lurrak edukitzeko kudeaketen zain dagoela adierazten du. Lurrak eskuratzeko kudeaketen alderdi horrek Zumarragako egitasmoari ere eragiten dio. Izan ere, obra aurreikusten zuten tokiko lurren titularrekin ados jartzerik izan ez dutela-eta, beste aukera batzuk aztertzen ari dira.*

Egitasmo horien arduradun askok azpimarratzen dute gaur egun arazo horiek konpondu egin direla, baina datorren ekitaldiko emaitzen zain egon beharko da Izartu ekimenak hartzen duen epean proiektu horiek egiteko bideragarritasuna aztertzeke.

Hainbat proiektutan, beren programazioa gorabehera, oraindik ez da gasturik egikaritu; proiektu horiek beren egitasmoan sartutako beste jarduketa batzuetan neurri handiagoan edo txikiagoan aurrera egin duten udalerriei dagozkie.

Proiektu horiek atzeratzeko arrazoiak bat datoz pixkanaka aurrera egin arren atzeratuago dauden (Amurrio, Donostia-Altza, Lezo-Oiartzun, Galdakao, Bermeo, Barakaldo Lutzana, Portugalete Azeta, Santurtzi, Sestao, Trapaga, Erandio eta Loiu) edo programatutako gastuaren %50 2003 ekitaldian lortu ez duten (Laudio, Elgoibar, Urretxu, Gernika, Leioa, Alonsotegi) egitasmoetako onuradunek emandako arrazoiekin. Emandako arrazoiak honako hauek dira:

- Egitasmoaren beste jarduketa batzuei lehentasuna ematearen beharra, edo ahaleginak aurrekontu-behar berdinetan zentratzeko beharra. Hori gertatzen da Amurrión, Elgoibarren, Galdakaon, Portugalete Azetan eta Leioan.
- Proiektuaren edukia aldatzeko erabakia, hain zuzen ere gaur egungoa bideragarria ez delako eta horrek Lezo-Oiartzun eta Gernikako egitasmoetako jarduketan izaera aldatzea dakarrelako.
- Adostasun politikorik eza: horrek galarazi egiten du udal aurrekontuetan Udalarekin finantzatzeko zatia onestea, eta horrek batik bat Laudioko eta Sestaoko Izartuei eragiten die.
- Beste administrazio batzuekiko lehia eta inplikaturiko jabeekiko akordioa, eta atzerapena hitzarmenen formalizazioan, baimenak ematen, lurak lortzen...; egoera hori dute Barakaldo Lutzanako eta Erandioko egitasmoek.
- Obretan atzerapenak metatzea eta obrak amaitzeko epea luzatzea, berriz programatzeak, jarduketan artean aurrekontua aldatzea, proiektuen idazketa atzeratzea eta lehiaketen esleipena atzeratzea. Hori gertatzen da Donostia-Altza, Santurtzi, Alonsotegi, Loiu eta Urretxuko egitasmoetan.
- Egitasmoaren beste jarduketa batzuk berandutzeak ekarritako atzerapenak, eta horrek proiektua abian jartzea baldintzatzea. Hori gertatzen da Bermeon eta Trapagan.

Zehaztutako helburuak betetzerakoan izandako aldaketa hauek jarduketak, inbertsioa eta epeak berriz programatzea ekarriko dute, batez ere proiektua berriz planteatu beharrak oztopatu dituenenak. Arduradunetako batzuek azpimarratzen duten moduan, jarduketa batzuk "jostun-kaxa" gisa tratatuak dira; horien lehentasuna txikiagoa da egitasmoaren gainerakoekiko, eta defizitarioagoak diren proiektuen aurrekontuak aurrera egiten duten neurrian horiek handitzeko balio dute. Bestalde, atzerapena obren berandutzeak edo Egitasmoaren gainerako jarduketek aurrera egitea baldintzatzen duten beste jarduketa batzuk berandutzeak eragin badute, inbertsioa eta egikaritu gabekoak gelditzen den epera aldatzea besterik ez da proposatzen.

Azkenik, **tokiko arduradunei galdetu zaie abian jarritako ekintzen egokitasunaren jarraipenari buruz**, edo desbideraketa horien aurrean baldintza orokorrak aldatu ahal izateaz.

Izartu egitasmoen bilatutako helburuak, eta aurre egin nahi zitzaizkien arazoak, ez dira aldatu eta **hartutako estrategia jotzen da kasu guztietarako egokientzat**. Oro har, gizarte eta ekonomiako joerak, tokiko eta hiriko ezaugarriak eta kohesio sozial eta ekonomikoko arazoak -Izartu egitasmoetako proposamenetako bakoitzean egindako azterketan antzemanak- gaur egungoak izaten jarraitzen dute beren onuradunentzat. Tokiko arduradunek berek baieztatzen duten moduan, egitasmoaren erdian, bere egokitasuna egiaztatuta uzten du onura jaso duen jendearen gogobetetze-mailak, izan ere emaitzak ikusten hasi dira egikaritzen ari diren proiektuetan. Horrela pairatutako aldaketek erlazioa dute proiektuen pisu erlatiboa doitu beharrarekin, komenigarritzat joaz Egitasmoaren beste lehentasun batzuk edo inbertsio-behar batzuk, eta aldaketa horiek ez dituzte inola ere aldatu egitasmoak zituen helburu orokorrak edo egokitasuna.


Nolanahi ere, atzeratuta dauden egitasmoetan oraindik zalantzak daude; izan ere, beharrezko baimenak eskuratu behar dira eta horiek egitasmo osoaren beste planteamendu orokor bat ekar lezake bideragarria ez balitz. Egitasmoaren egokitasunari buruz eztabaidatutako gaiaren inguruan, onuradun horiek abstenitzea erabaki dute, **2004an hurrengo ekitaldiko emaitzen zain**.

3.2. EGITASMOAREN AURRERAPENAREN BALORAZIOA IKUSPEGI FUNTZIONALETIK ETA LURRALDE IKUSPEGITIK

3.2.1. EGITASMOAREN AURRERAPENA INBERTSIOA KONTUAN HARTUTA


Aurreratu dugu dagoeneko ekimena egikaritzen bi urte eta erdi eman ondoren, **Egitasmoaren erdian, onuradun diren udalerriek Izartu osorako aurreikusitako inbertsioaren ia erdia lortu dutela**. 2003 ekitaldian egindako ahalegin ekonomikoak -eta horri eranstean zaio aurreko urteetan egindako ahalegina- 102.497.511€-ko inbertsio metaturako aukera eman du, hau da, %46 aurrekontu osoarekiko (221.537.288€).

6 grafikoa: 2001-2003 epean egindako gastua, inbertsio guztiarekiko.



Ibilbide historikoari begiratuta, ikusten dugu egitasmoak egikaritzeko erritmoa azkartu egiten dela horiek aurrera egin ahala, eta horien atzerapenaren arrazoi nagusiak, eta bereziki garrantzi handiko ekimen bat abian jartzen den lehen urtearen zailtasunak, gaingitu egin direla.

7 grafikoa: 2001-2003 egindako inbertsioaren ibilbidearen erkaketa.




Sailkapen funtzionalari begiratuta, izandako aurrerapena ez da berdina izan esku-hartze eremu ezberdinetan. Berriz ere, 3 eta 4 ARDATZAK dira atzeratuen agertzen direnak, ez soilik beren programazioari dagokionez, baizik eta baita zenbaketa orokorrari dagokionez ere. Aurreko urteetan bezala, gogorarazten dugu 3 eta 4 ARDATZetan sartutako jarduketa asko 1 eta 2 ARDATZei dagozkien eraikuntza berriko edo berreskuratzeko proiektuen baitan gaitzen ari diren lokal edota eraikinetan abian jartzeko zerbitzu gisa hartuak direla, eta horrek azaltzen du jokabide ezberdina.

1 eta 2 ARDATZetan, esku-hartze eremuen barruan aurreratuenak, 2.8 neurrian (Hezkuntza eta Prestakuntzako azpiegitura) sartutako bi proiektuak amaitu dira 2003an zehar. Bere helburuak lortu dituen lehena da. Halaber, oso aurreratuta daude, eta beren inbertsio osoa osatzekotan, 2.2. neurria (Telekomunikazioa eta Informazioaren Gizartea azpiegitura) eta 1.2. neurria (Ekoizpen azpiegituraren sorkuntza eta garapena), izan ere %87ko eta %84ko inbertsioa egin dute, hurrenez hurren. Munta eskaseko neurriak dira era berean, batetik hartzen dituzten proiektuen kopuruari begiratuta, 10, eta bestetik Izartu osoari begira inbertsioak duen pisu espezifikuari begira, %3. Batez bestekoaren gainetik kokatuko lirateke, 2001-2003 epean izandako inbertsio-aurrerapena kontuan hartuta, 2.7. neurria (Aisialdi eta Kultura azpiegitura), 4.3. neurria (Heziketa eta prestakuntza zibikoa), 2.3. neurria (Azpiegitura energetikoa), 2.4. neurria (Ingurumen azpiegitura), 1.4. neurria (Udal sustapena turismoa eta ondarea), izan ere beren egikaritzea aurrekontu osoaren erditik gorakoa izan da. 2.5. neurriak (Antolamendu eta Birgaitze azpiegiturak) proiektuen ia erdiak eta inbertsioaren %40 baino zertxobait gehiago hartzen du, eta Egitasmoaren aurrerapen orokorraren erritmoa markatzen du, %46.

Aldiz, gutxien aurreratuta dauden proiektuak neurri hauei dagozkie: 3.4. Hezkuntza eta prestakuntza, 4.1. Tokiko oinarritzko zerbitzuak, 1.1. Jarduerari laguntzeko azpiegituren sorkuntza eta garapena, 3.2. Gizarteratzea eta 3.3. Aukera berdintasuna.

8 grafikoa: Esku-hartze eremuak. 2001-2003 epean egindako gastua inbertsio osoarekiko.



Lurralde-ikuspegitik, datuek ez dute aurreko urteetan ikusten ari ginen ibilbidea aldatzen. **Gipuzkoa da herrialderik aurreratuenak, metatutako gastu egikaritua (2001-2003) inbertsio osoarekiko %60koa da; horren ondoren Bizkaia dago, %44, eta Araba azkenik, %28.** Gipuzkoako Lurralde Historikoaren batez bestekoa handituta dago Irungo egitasmoan egindako inbertsioarengatik; izan ere, ekimena amaitu gabe Izarturen baita aurre egin behar duen inbertsioa baino gastu handiagoa erakusten du. Hala eta guztiz ere, Bidasoa Behera eskualdea kontuan hartu gabe, Gipuzkoak Izartu Egitasmoaren buru jarraituko luke, bere aurrekontuaren %48 egikaritua duelarik.

Bestalde, aurreko ekitaldietan eragin handia zuen egitasmoen egikaritze-epeak beren aurrerapenarekiko (hasiera batean bi urtetik bostera hartzen zuen), baina horrek ez du jadanik garrantzi handia Izarturen martxa osoari begira, izan ere udalerri gehienetan berriz programatu dira egikaritze-epe txikiagoarekin, eta 2005ean amaitzea aurreikusten duten gainerakoei berdindu. Egia da, baita ere, zenbait onuradun hasiak direla proiektuak 2006 eta 2007 urteetan zehar luzatzea planteatzen, baina gai horrek garrantzi handiagoa izango du egiten diren geroagoko segimendu-txostenetan.


Eskualdeka, aurreratuenak hauek dira: *Bidasoa Beherea (%118), Bilbao (%102), Durangaldea (%70), Tolosa (%68), Enkarterriak (%67), Goierri (%65), Plentzia Mungia (%64), Hego Uribe (%57) eta Debarrena (%50).* Atzeratuenak, berriz, honako hauek: *Markina-Ondarroa (%7), Arratia Nerbioi (%10), Ezkerraldea (%20), Donostia (%23), Gernika-Bermeo (%25), Kantauri Arabarra (%28), Txorierri (%33), Ekialdea eta Eskuinaldea (biek %34ko egikaritzea).*

Udalerriei dagokienez, atzeratuen dauden egitasmoen desbideraketei buruzko atalean gelditu ginenez gero, atal honetan ardatz hartuko ditugunak aurreratuen dauden egitasmoak dira. Hori horrela, **Etxeberrikoaz gain -iaz amaitu zuen-, Bilbao Otxarkoagako eta Ermua udalerriko egitasmoak ere ekitaldi honetan zehar osatu dira.**

Beren egitasmoa erabat lortzetik hurbil daude Irun, Legazpi, Zegama, Bilbao Zaharra eta Gueñes. Gueñes eta Zegama izan ezik -horiek inbertsio osoaren %88 eta %90 egikaritu dute-, zehaztutako gainerako udalek inbertsio hori gainditu dute baina oraindik beren egitasmoko proiekturen bat gelditzen zaie osatzeko eta, hortaz, aldea beren funtsen baitan hartuko dute.

Beren egitasmoko bi heren egikarituak dituzte Debako udalerriak (%69), Mendarok (%67), Mutrikuk (%68), Soraluzek (%63), Errenteriak (%65), Ordiziak (%69), Tolosak (%68), Arrigorriagak (%68), Berrizek (%66), Karrantzak (%66), Muskizek (%61) eta Mungiak (%64). Azkenik, inbertsioaren erdia inguru egikaritu duten egitasmoen artean daude Donostia-Altzakoak (%48), Urretxukoa (%51), Basaurikoa (%53), Balmasedakoak (%59), Gordexolakoak (%55), Portugalete Azetakoak (%46) eta Loiukoak (%48).

9 grafikoa: Eskualdeak. 2001-2003 epean egindako gastua inbertsio osoarekiko.



3.2.2. TOKIKO INBERTSIO AHALEGINA ETA JASOTAKO DIRULAGUNTZAK

2001-2003 epean egindako gastu guztiaren %30 udal inbertsio ahaleginari dagokio; hau da, gutxi gorabehera 31 milioi euro. Onuradunen artean ahalegin hau aldatzen da elkarrekin finantzatzeko tasaren arabera; izan ere, oro har Dekretuak diruz lagundu daitekeen inbertsioaren %50eko laguntza ezartzen du, behartsutzat sailkatutako eskualdeetako batean kokaturiko udalerrri edo arloetarako izan ezik, horietarako laguntza-ehunekoa %75ekoa baita.

Eusko Jaurlaritzak jarritako dirulaguntza-ehunekoa handia gorabehera, adierazi behar da tokiko ahalegin ekonomikoa mahairatutako zenbatekoa baino handiagoa dela; izan ere, Egitasmoak ez du inbertsioen BEZa aitortzen, eta hori udal erakundeek berek hartu behar dute beren gain. Horrek esan nahi du udal aurrekontuez egikaritutako 31 milioi euroei zerga horri dagozkion 10-16 milioi gehitu beharko litzaiekeela, eta hori osoki udalak hartzen du bere gain. Halaber, aurreratu genuen moduan, zenbait egitasmok Izarturen baitan hartutako inbertsioa baino kostu handiagoari egiten dio aurre hasieratik, eta egoera hori orokortzen ari da, dagoeneko amaitu diren hainbat proiekturen emaitza ekonomikoetan ikusten dugun moduan. Horren guztiaren ondorio gisa, **epe horretako eta gelditzen deneko inbertsio-bolumena jarraipen txostenetan erakutsitako datu ekonomikoak baino handiagoa da**, eta berriz ere berretsi egiten du udalek hiria biziberritzeko prozesu hauen bitartez hartu duten konpromisoa.

Bestalde, egitasmoa bateragarria da gainerako administrazioetatik eta erakunde publikoetatik eta gobernutik bertatik datozen beste laguntza eta dirulaguntzekin, eta horrek laguntza handia dakarkio batzuetan udalarekin batera finantzatzeari.

Lehenengo egikaritze-urte hauetan guztira 4.225.740 euro jaso dira Izarturen baitan sartutako jarduketetarako bestelako laguntza eta dirulaguntza modura. Horrek, egikaritutako gastu guztiaren %4 besterik osatzen ez badu ere, udal inbertsioari dagokionez egindako ordainketa ekonomikoaren %13 osatzen du.

Onuradunen erdiak gutxi gorabehera, 21 egitasmok, laguntza horietakoren bat jaso du, nahiz eta hori ekimenaren baitan finantzatutako 327 jarduketetatik 32 proiekturi soilik dagokion. Halaber, proiektu horien kostu osoari dagokionez, beste dirulaguntza hauei dagokien inbertsio-ehunekoa soilik %15era iristen da batez beste.


Bestalde, ez da ikusten "aparteko" laguntza horiek esku-hartze eremu jakin batzuetan metatzen direnik; aitzitik, ezberdintasunik egin gabe banatzen dira neurri guztien artean. Nolanahi ere, proiektuen tipologiari begiratuta, ikusten dugu dirulaguntza gehien jaso duten jarduketak hauek direla: enplegurako prestakuntza, ekonomi jarduerarako azalera egokitzea, eta eraikin eta hiri ekipamenduak birgaitzeko proiektuak, baita hainbat motatako hirigintza-hobekuntza ere.

Halaber, lurraldeka eta eskualdeka ere ez da alde handirik antzematen laguntzak jasotzeari eta laguntza ematen duten erakundeei dagokienez. **Batez ere foru aldundietatik eta Eusko Jaurlaritzatik, batik bat Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Saisetik, dator baliabideen zatirik handiena.** Nolanahi ere, azpimarratzekoak dira era berean INEMen eta Ingurumen eta Justizia eta Enplegu sailaren egitasmoak eta FEDER funtsak.

3.2.3. EGITASMOAREN AURRERAPENA IKUSPEGI OSO BATETIK

Egitasmoaren aurrerapena ikusita, ikuspegi orokor batetik, **udal arduradunek proiektuen ibilbideari buruz egindako balorazioa aurreko urteetakoa baino hobea da**. Onuradunen %70ek, 35 egitasmori dagozkienek, oso positibotzat jotzen dute ekimenean duten partaidetza, egikaritze-erritmoa eta zehaztutako helburuen lorpenean erdietsitako emaitzak. Gainerako udalerrietatik, erdiek ez dute iritzia eman; horietatik gehienak bat datoz 2003 ekitaldian atzeratuta egon diren egitasmoekin. Beste erdiak uste du ekimenak aukera paregabea eskaintzen duela beren herrietako kohesio sozial eta sozio-ekonomiko eta lurralde-kohesiorako baina egikaritzea ez dagoela espero zenaren pare, lehen aipaturiko atzerapen eta elkarmenpeketasunak baldintzatzen baitute.

10 grafikoa: Izartu Egitasmoaren ibilerarekiko gogobetetzearen balorazioa



Udal arduradunek proiektu asko abian jartzea geldiarazten zuten gatazka nagusiak konpontzea zehaztu dute 2003 ekitaldiko emaitza nagusi gisa, eta eskertu egin dute Izartu Egitasmoaren malgutasuna, izan ere jarduketak eta epeak benetan dauden beharretara egokitzeko aukera ematen du. Azpimarratu egiten dute proiektuen aurrerapen-mailak agerian jartzen duela udalek biziberritze-prozesuak ongi bideratzeko egin duten apustua eta hartu duten benetako konpromisoa; izan ere askotan, eta bat ez ere udalerrri txikietan, udalek kudeatutako munta handieneko proiektua da. Halaber, herritarren antzematen hasia den gogobetetasun-maila handia azpimarratzen dute, gogobetetzea hain zuzen ere aspaldi sortutako proiektuak, soilik udal baliabideez betetzeko zailak zirenak, gauzatu egin direlako: *eremu publikoak nabarmen hobetu dira, hondatutako inguruneak berreskuratu, auzoen arteko kohesioa handitu, azpiegitura eta ekipamendu berriak, gizarte eta ekonomi zerbitzu berriak, enplegua bere inguruneetan berpiztu, ondarea eta hiriaren itxura hobetu...*

Balantze oso positibo hori agerian jartzen dute proiektuen garapenaz lortutako emaitzek.

- **Lehenik eta behin, lehenago azaldu dugun moduan, 3 egitasmok amaitu dute 2003ko abenduaren 31n, Etxeberriko Egitasmoak 2002. urtean amaitu zuen, eta Bilbao Otxarkoaga eta Ermuko egitasmoek ekitaldi honetan zehar amaitu dute.**

Beren partaidetzari buruz, osatutako azken egitasmo hauen arduradunek ekimenaren erabateko arrakasta azpimarratu dute; Bilbaori dagokionez, proiektu historiko bati amaiera emateko aukera eman du, hala nola Otxarkoaga Osoki Urbanizatzeko Plana, eta Ermuari dagokionez, hiria bere onera ekartzeko egitasmo oso bat gauzatzeko; egitasmo horrek ingurumen arloko helburuak eta hiriaren itxura hobetzeko helburua gizarte-ekipamendu berrien ekintza sozio-ekonomikoekin eta enpleguari laguntzeko zerbitzuekin elkartzen ditu. Horretaz gain, Izarturen konpromiso serioaren eta sendotasunaren irudia azpimarratzen dute, beste zenbait laguntza-egitasmotan ez dagoena, eta horren eragin biderkatzaileak nabarmentzen dituzte, izan ere andeatutako inguru horietako biztanleengan oparotasun sententzia sortzen dute, baita ekonomi jardueran ere, egindako aurrerapenak indarra ematen diolako.

- **Bigarrenik, zenbaketa orokorra eginda ikusten da Izartuk onetsitako jarduketetatik 97 proiektuk 2003. urtean amaitu dutela, hau da, laguntza teknikoko jarduerak kontuan hartu gabe Izarturen pean finantzatutako proiektuen %30.**

30 Izartu egitasmok, onuradunen %60k, proiekturen bat edo batzuk amaituta dituzte 2003 ekitaldiaren amaieran, nahiz eta batzuetan jarduketa horiek, horrela zenbatuta, berez proiektu bakarra denaren faseei dagozkien.

Beren egitasmoetako proiektu gehien osatu dituzten udalerriak hauek dira: Irun, Mendaro, Legazpi, Urretxu, Zegama, Tolosa, Bilbao Zaharra, Berriz, Balmaseda, Gueñes, Karrantza eta Leioa.


Proiektu horien emaitzak eta eraginak xehetasunez azkeneko atalean aztertuko badira ere, hurrengo taulan egoeraren berri ematen da, esku-hartze eremuak kontuan hartuta.

ARDATZAK ETA NEURRIAK	PROIEKTUA K GUZTIRA	PROIEKTU AMAITUAK	%
1 ARDATZA. ENPLEGUA ETA EKOIZPEN INGURUA	33	9	%27
1.1.Jarduerari laguntzeko azpiegituren sorkuntza eta garapena	11	2	%18
1.2.Ekoizpen azpiegituraren sorkuntza eta garapena	4	1	%25
1.3. Babesa enpresariei, enpresa txiki eta ertainei eta artisau enpresei	8	2	%25
1.4. Toki sustapena, turismoa eta ondarea	10	4	%40
2 ARDATZA. TOKIKO OINARRIZKO AZPIEGITURAK	255	77	%30
2.1. Garraio azpiegiturak	21	4	%19
2.2. Telekomunikazioa eta Informazioaren Gizartea azpiegitura	6	1	%17
2.3. Azpiegitura energetikoa	1	0	%0
2.4. Ingurumen azpiegitura	25	8	%32
2.5. Antolamendu eta Birgaitze azpiegiturak	151	52	%34
2.6. Gizarte eta Osasun azpiegitura	11	3	%27
2.7. Aisialdi eta Kultura azpiegitura	38	7	%18
2.8. Hezkuntza eta Prestakuntza azpiegitura	2	2	%100
3 ARDATZA. GIZA BALIABIDEAK ETA GIZARTERATZEA	31	9	%29
3.1.Lan merkatuaren politikak	8	1	%13
3.2.Gizarteratzea	9	5	%56
3.3. Aukera berdintasuna	8	1	%13
3.4. Hezkuntza eta prestakuntza	6	2	%33
4 ARDATZA. TOKIKO OINARRIZKO EGITUREN SORKUNTZA ETA GARAPENA	8	1	%13
4.1. Tokiko oinarrizko zerbitzuak	7	1	%14
4.2. Herritarren segurtasuna	-	-	-
4.3. Hezkuntza eta prestakuntza zibikoa	1	0	%0

3.2.4. EGITASMOA AURRERATZEN LAGUNTZEKO NEURRIAK

Egitasmoari aurrera egiten laguntzeko neurriei dagokienez adierazi beharreko lehenengo gauza hau da: **2003 ekitaldian laguntza teknikoaren kontu-sailean egikaritutako gastua handitu egin dela aurreko urteekiko.**

11 grafikoa: Izartu Egitasmoari laguntza teknikoa emateko gastua 2001-2003 epean




Aurreko grafikoa ikusten den moduan, laguntza teknikoan 2003. urtean egindako inbertsioak (584.938 €) ia bikoiztu egiten du Izartu abian jarri zen lehenengo bi urteetan egindako inbertsioa, eta egitasmoak egikaritzen laguntzeko kontu-sail honek duen dotazio ekonomiko osoaren ia %70eko gastua metatzen du.

32 egitasmok -aurreko urtean baino zazpi gehiagok- erabili dituzte kanpoko laguntza teknikoko zerbitzuak. Nolanahi ere, horregatik ez dugu pentsatu behar eragin zuzena izan duela Egitasmoa gehiago egikaritzeko, kontuan hartuta 2003an onuradun gehienek beren egitasmoen tarteko ebaluazio prozesua egin behar zutela zerbitzu hori kanpoko ebaluazio-talde bati azpikontratatzuz. Kontu-sail horretan gastua duten ia egitasmo guztientzat urte horretako laguntza-eginkizun nagusietako bat tarteko ebaluazio-txostenak egitea da.

Aurreko urteekiko beste ezberdintasun bat hau da: laguntza teknikoaren zeregin nagusiak 2003 ekitaldian ez direla izan proiektuak mugatu eta zehazteko laguntza zereginak, lanabesak erraztea edo egitasmoaren eta tartean diren udal arloen arteko koordinazio eta kudeaketarako laguntza.

Fase hori gaindituta, eta beharbada ebaluazioek horietan lagundu dute, onuradunek 2003an zehar adierazitako laguntza-zeregin ohikoenak hauek izan dira: proiektu eta obren segimendua, azterketa teknikoaren kontratazioa eta aholkularitza esparru zehatzetan, hala nola, ingeniariaritza, arkitektura...

12 grafikoa: Laguntza teknikoaren jarduketak nagusiak 2003 urtean zehar



Proiektuen aurrerapen nabarmena dela eta, egitasmoari laguntzeko neurri gisa **areagotu egin dira**, halaber, **2003. urtean zehar, Izarturen pean finantzaturako proiektuen publizitate eta zabalkunde jarduerak.**


Hazkundera gertatzearen arrazoia ez da hainbeste egitasmoen kopuruari dagokionez, izan ere aurreko urteetan ia onuradun guztiak hartzen zituen (soilik 4 egitasmoak adierazi dute ez dutela publizitate eta zabalkunde neurririk hartu proiektuen atzerapenarengatik), baizik eta hazkundera gehiago dagokio erabilitako publizitate-bitartekoen osotasunaren eta zabalkundearen irismenari.

Alde horretatik, egitasmo onuradunen ia bi herenek hainbat bide eta neurri erabiltzen dituzte Izartu egitasmoa jarduketak informatzeko eta iragartzeko. Aurten garrantzitsua izan da, gainera, abuztuaren 31ko 318/1999 Dekretuari jarraiki (Eusko Jaurlaritzaren Erakunde Nortasunaren Eskuliburua arautzekoa) Egitasmoari loturiko publizitate-neurrietarako xedaturiko lege-irizpideak betetzeaz arduradunek egindako erreferentzia.

Egitasmoen, Izartu ekimenaren eta Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzaren arteko finantzaketaren edukiaz informatzeko gehien erabili diren bideak eta bitartekoak hauek dira: esku-hartze eremuetan kokaturiko kartelak, informazio-oholak eta publizitate-hesiak, horiek gero informazio-plaka iraunkor bihurtzen dira; publizitate-kanpainak, hainbat eratako artikuluak eta iragarkiak eskualdeko edota autonomia erkidegoko prentsan, eta udal informazioan ohikoak diren udal bideak edo tokiko komunikabideak (web, buletinak edo udal aldizkariak, buzoneatzea)

Era berean, joan den urtean zehar, nabarmena izan da udalek, batzuetan Eusko Jaurlaritzan Egitasmoaren ardura dutenekin batera, egin duten informazio-lana proiektuen "produktuetan" beretan: Prestakuntza diplomak, ordenantzak, informazio-triptikoak eta izapideak "azken" onuradunei zuzenduriko dirulaguntzak eskatzeko (laguntzak birgaitzeko, enpresei, ekintzaileei, langabetuei...). Azkenik, beste publizitate-bide zehatzago eta pertsonalago batzuk nabarmentzen dira, hala nola, abian diren proiektuen onuradun edo afektatuei jarduketak azaltzeko antolatutako informazio-bilerak eta hitzaldiak.

13 grafikoa: 2003. urtean Izartu egitasmoetan erabilitako komunikazio, informazio eta zabalkunde bitartekoak



4. HIRIA SUSPERTZEKO PROZESUEN AURRERAPENAREN TXOSTENA

Atal honetan, egitasmoek aldatu nahi duten errealitateari egiten dioten ekarpena aztertuko dugu. Hau da, hurrengo ataletan, aurreko txostenetan egin zen moduan, **proiektu integralen ekimen berritzaile honen azken xedeari begiratuko diogu. Proiektu horien ardatza beren eragin-eremuetan egituraketa handiagoa eta lurralde, ekonomi eta gizarte mailako kohesio handiagoa bilatzea da.**

Gogoan izan behar da Izartu egitasmoaren xedea Euskal Autonomia Erkidegoko hiri-inguru behartsuenetan gizartearen eta egoera ekonomikoaren biziberritzea sustatzea dela, **horretarako osotasunezko jarduketak erabiliz (Hiria Berpizteko Egitasmo Osatuak). Osotasunezko jarduketa horietan, batera jorratzen dira inguru horietako arazo zehatzak (sozialak, ekonomikoak, ingurumenekoak, etab.), azken helburua beren lurralde, ekonomi eta gizarte mailako kohesioa lortzea dela.** Hori horrela, araututako laguntzei lotzen zaizkion proiektuen ardatza, oro har eta kontuan hartuta ekintzaren tipologia eta espero izandako eragin edo azkenaren xedea, kohesio-helburu orokor hauetako bat edo batzuk izaten dira:


- *Lurralde integrazioa, irisgarritasuna eta hiri-kohesioaren hobekuntza*
- *Komunikazioen eta informazioaren teknologia berriak sartzea*
- *Ingurumena eta andeatutako inguruak berreskuratzea*
- *Jarduera ekonomikoa sustatzea: enpresa berriak eta enplegua*
- *Babesa enpresariei, enpresa txiki eta ertainei, turismoari eta udal ondareari*
- *Hiriaren ingurua, itxura eta kalitatea hobetzea. Urbanizazio-lanak eta birgaitzeko proiektuak*
- *Udalak gizarte, kultur eta aisialdi zerbitzu eta ekipamenduez hornitzea*

2002. urteari zegokion aurreko segimendu-txostenean, aipaturiko helburu hauetako bakoitzaren inguruan multzokatzen diren proiektuen tipologiaren deskribapena sakon jorratu genuen. Hori dela eta, karakterizazio hori laburki birpasatu besterik ez dugu egingo, eta gure arreta proiektu horiek, bi urte eta erdiz egikaritzen aritu ondoren, kohesio-xede orokorren lorpenean erdiesten ari diren aurrerapenean jarriko dugu (egindakoak, emaitzak eta eragina).

Halaber, adierazi behar da helburu bakoitzean sartutako proiektuen sailkapenari buruzko datuak beharbada aldatu egin direla aurreko txostenarekiko, eta hori tokiko arduradunek egikaritze-txostenen atal honetan izandako partaidetzari eta argitzeari zor zaio batik bat. Aldaketa txiki horiek ez dute eragin handirik izan proiektuen eta inbertsioaren helburukako banaketan, biek ardatz izan dute gehien bat honako xedea: hirien ingurua, itxura eta kalitatea hobetzea. Urbanizazio-lanak eta birgaitze-proiektuak. Horien ondoren, garrantziaren arabera, hauek: lurralde-integrazioa; irisgarritasuna eta hiri-kohesioaren hobekuntza; udalerrriak gizarte, kultur eta aisialdi zerbitzu eta ekipamenduez hornitzea, eta Ingurumena eta andeatutako inguruen berreskurapena. Inbertsio eta proiektu kopuru txikiena duten xedek hauek izaten jarraitzen dute: Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia Berriak sartzea, babesa enpresariei, enpresa txiki eta ertainei, turismoari eta udal ondareari, eta ekonomi jarduera sustatzea: enpresa berriak eta enplegua.

Proiektu bakoitzeko inbertsio batez bestekoa 600.000€-koa da, nahiz eta helburuen artean ezberdintasunak badiren. Inbertsio hori bikoiztu egiten duten proiektuak xede honetan sartuta daude: Lurralde-integrazioa, irisgarritasuna eta hiri-kohesioaren hobekuntza. Aldiz, inbertsio batez bestekoaren erdira iristen ez diren jarduketak xede hauetan sartuta daude: Informazioaren eta Teknologiaren Teknologia Berriak sartzea, jarduera ekonomikoa sustatzea: enpresa berriak eta enplegua, eta babesa enpresariei, enpresa txiki eta ertainei, turismoari eta udal ondareari.

14 grafikoa: Izartu Egitasmoko proiektuen sailkapena helburu orokorren arabera



Gogorarazten dugu proiektuen sailkapena ez dela zehatza, izan ere, Egitasmoaren izaera integrala dela-eta, proiektu askok helburu bat edo asko jorra ditzakete. Nolanahi ere banaketa horrek aukera ematen du lortutako eragin eta emaitzen aurrerapena hobeto kuantifikatzeko. Hori dela eta, tokiko arduradunen laguntzarekin, proiektu-taldekatzea honela egin da:

- **Lurralde integrazioa, irisgarritasuna eta hiri-kohesioaren hobekuntza:**
Hemen sartzen diren jarduketak honelakoak dira: sarbide eta bide berriak, eremuak lehenera ekartzeko proiektuak, hirigintzako berrikuntzak, ekipamendu berriak andeatutako auzoetan edota inguruko auzoetan eta horien komunikazioa hobetzea, arlo horiek hiri-bilbean sartzeko.
- **Informazioaren eta Komunikazioen Teknologia Berriak sartzea:**
Oro har biztanleen artean eta baita kolektibo zehatzen artean ere -enpresak, udal antolamendua, emakumeak, gazteak- Informazioaren eta Komunikazioen Teknologia Berrien erabilera areagotzera eta sustatzera zuzenduriko proiektuak; horretarako, ekipatutako eremuak sortzen dira, prestakuntza-ikastaroak, Internet bidez eskainitako udal zerbitzuak...
- **Ingurumena eta andeatutako inguruak berreskuratzea:**
Honelako jarduketak: andeatutako arlo eta inguruak berreskuratzea, hiri-ingurumenaren hobekuntza, inguruaren gozamenerako eremu eta ekipamenduen dotazioa, kontzientziazio ekologikoa eta ingurumena zaintzea eta errespetatzea.
- **Jarduera ekonomikoa sustatzea: enplegua eta enpresa berriak:**
Jarduera ekonomikoa sustatzeko eta enplegua sortzeko proiektuak: prestakuntza, ekintzaileei eta bazterketa-arriskuan diren kolektiboek laguntzea, industri jarduerak eta hirugarren sektoreko jarduerak kokatzeko eta gauzatzeko eremuak eta lokalak...
- **Babesa enpresariei, enpresa txiki eta ertainei, turismoari eta udal ondareari:**
Tokiko enpresen lehiakortasuna areagotzea xede duten proiektuak, eta batez ere turismo sektorearen sustapena xede dutenak, horretarako jarduerak horri laguntzeko azpiegitura-planak erabiliz: udal ondarea birgaitzea, turismoa erakartzeko eremu eta gertakariak sortzea...

➤ **Hiriaren ingurua, itxura eta kalitatea hobetzea. Urbanizazio-lanak eta birgaitze-proiektuak**

Hirigintzako hobekuntzak, hiri-azpiegituren hornikuntza eta instalazioa, urbanizazio-planak, eremu publikoak gaitzea (parkeak, plazak, lorategiak...), oinezkoentzako bideak eta hobekuntzak udalerrriaren erdialdeko guneetan edo gune berezietan, hiriaren itxura hobetzea gune historikoak, eraikinak, etxebizitzak... birgaitzeko proiektuen bitartez.

➤ **Udalerrriak gizarte, kultur eta aisialdi zerbitzu eta ekipamenduez hornitzea**

Hirugarren sektoreko ekipamenduak eta zerbitzuak sortzea: zentro soziokulturalak, hirugarren adinekoentzako, emakumeentzako edo gizarte-bazterketa egoeran dauden kolektiboentzako eremuak, aisialdiko erabilera anitzeko eraikinak edo merkataritza-eraikinak, aisialdirakoak, baita gizarte egitasmo eta zerbitzu zehatzak etab. ere.

4.1. AURRERAPENA HELBURUETAN: INBERTSIOA ETA EGINDAKOAK


Atal honetan kohesio-xede orokorretako bakoitzean gertatzen ari den aurrerapena aztertuko dugu, kontuan hartuta egindako inbertsioa eta jarduketak edo proiektuetako bakoitzean egindako jarduketa nagusiak.

Adierazi behar da, aurreko jarraipen txostenean ikusi ahal izan genuen moduan, kohesioari dagokionez -inbertsioa eta egindakoak- Izartu egitasmoen aurrerapenaren azterketan egindako ezberdintze bi azterketatik datorrela. Bi parametroek antzeko aurrerapena izan beharko luketela dirudien arren, egitekoetan izandako aurrerapena askotan ez da finantza-egikaritzearen proportzio berekoa. Egikaritutako gastuak -aurreko ataletan ardatz hartu dugun irizpide nagusia- helburu horien garapena neurtzeko parametro zehatzagoa dirudien arren, egikaritutako jarduketetan egindako aurrerapenak -egindakoen adierazleen bitartez neurtuta- ez du hain zehatz islatzen; baina, hala ere, proiektuen errealitateari eta onuradunek proiektuen aurrerapenaz duten iritziari buruzko ikuspegi deskriptiboagoa ematen du. Bigarren azterketa honek, hortaz, egindakoen azterketak, oinarriak ezarriko ditu EAEn kohesio sozial eta ekonomiko handiagoa lortzera bideratutako proiektu eta egitasmoen emaitza eta eragin nagusiak ulertzeko.

Hori horrela, lehenik eta behin, eta orain arte egindako inbertsioari dagokionez, gogora dezagun inbertsio orokorra kontuan hartuta egikaritutako gastuaren batez bestekoa %46an kokatzen zela. Kohesio-helburu orokorrei begiratuta, finantza-egikaritzearen batez besteko horren gainetik daude honako helburu hauek: Udalerriak gizarte, kultur eta aisialdi zerbitzu eta ekipamenduez hornitzea -inbertsio osoaren %56 egikaritua-, eta hiria ingurua, itxura eta kalitatea hobetzea. Urbanizazio-lanak eta birgaitze proiektuak -%48. Kohesio-helburu orokorretatik soilik zazpi diren arren, horien batuketak Izartu ekimenaren osotasunerako inbertsio eta jarduketa guztien erdia baino gehiago osatzen du.

Aldiz, gastu egikarituaren arabera gutxien aurreratu diren helburuak hauek izan dira: *Informazioaren eta Komunikazioen Teknologia Berriak Sartzea eta jarduera ekonomikoa sustatzea: enpresa berriak eta enplegua*, horiek hurrenez hurren %33ko eta %34ko inbertsio egikaritu dutela. Bi helburu horiek proiektu guztien %15 besterik ez dute hartzen; hortaz, egindako inbertsioak ez du eragin handirik izan egitasmo osorako finantza-egikaritzearen batez bestekoan.


15 grafikoa: Kohesio-helburu orokorrak. 2001-2003 aldian egindako gastua inbertsio osoarekiko.



Proiektu bakoitzerako programatutako zeregin guztiak kontuan hartuta egindako jarduketari begiratuta, emaitza horiek ez datoz bat helburu orokorren aurrerapen egoerarekin. Egite guztien egikaritze batez bestekoak finantza egikaritzea berdindu egiten badu ere, %46, onuradunek jasotako proiektu aurrerapena ez dator bat egindako ordainketa ekonomikoarekin. Hori horrela, egiteak aztertzen baditugu, kohesio-helburu aurreratuenak hauek dira: Babesa enpresariei, enpresa txiki eta ertainei, turismoari eta udal ondareari, programatutako zereginen %73 eginda dituztela, Ingurumena eta andeatutako inguruen berreskurapena, %63, eta Ekonomi jarduera sustatzea: enpresa berriak eta enplegua, %53.

Kohesio-helbururik atzeratuena *Informazioaren eta Komunikazioen Teknologia Berriak Sartzea* da oraindik ere, baina bigarren tokian agertzen da, halaber, *Lurralde integrazioa, irisgarritasuna eta hiri-kohesioaren hobekuntza*. *Udalerriak gizarte, kultur eta aisialdi zerbitzuez eta ekipamenduez hornitzea* eta *hiriaren ingurua, itxura eta kalitatea hobetzea, urbanizazio lanak eta birgaitze proiektuak* helburuak, finantzaren ikuspegitik aurreratuenak diren arren, egindakoen ikuspuntutik Egitasmo osorako egikaritze guztiaren batez bestekoaren azpian kokatzen dira.

16 grafikoa: Kohesio-helburu orokorrak. Egindako jarduketak, aurreikusitako jarduketa guztiekiko.




Emaitza ezberdin horiek erakusten duten balorazioak, onuradunek eginak, aurrerapen handiagoa adierazten du proiektu hauetan: hiri-azpiegiturako lan handiei loturik ez dauden proiektuak, egitasmoen inbertsio osoaren ehuneko handi bat hartzen dutenak; horien aurrerapena mantsoago antzematen da. Ekonomi dotazio txikiagoa eta inbertsio-ahalegin txikiagoa duten jarduketetan, hala nola, prestakuntza, ekintzaile izpirituaeren sustapena, turismo-atrakzioen eta ekitaldien antolamendua, inguru andeatuak, industri aurriak etab. berreskuratzea, aurrerapena gehiago antzematen da, batez ere horien emaitzak epe motzean ikus daitezkeelako: enplegua, ingurumenaren gaineko eraginaren hobekuntza, enpresa berriak...

Hiru lurraldeetan egindakoen aurrerapenari dagokionez, datuek ia ez dituzte emaitza ekonomikoak aldatzen. **Gipuzkoa da lurralderik aurreratuena egindako jardueren kopuruari dagokionez; horren atzetik Bizkaia dago, eta azkenik, Araba.**

Egindakoei dagokienez aurrerapen handiena duten eskualdeak, Gipuzkoako Lurralde Historikoan, honako hauek dira: *Tolosa, Goierri, Bidasoa Beherea, Debabarrena eta Ekialdea; eta Bizkaian, berriz, Bilbao, Enkarterriak, Durangaldea eta Plentzia-Mungia.*

17 grafikoa: Kohesio-helburu orokorrak. Aurrerapena eskualdeka, egindakoak kontuan hartuta



4.2. HIRIA SUSPERTZEKO PROZESUETAKO EMAITZAK

Kohesio-helburu orokorretako bakoitza bere aldetik eta bere aurrerapen ekonomikoaren arabera eta egindakoen arabera aztertzen badugu, kontuan hartuta, gainera, horiek hartzen dituzten jarduketaren tipologia eta udalerri onuradunak, **Izartu egitasmoaren erdian**, 2001-2003 aldian, **lortutako emaitza nagusien deskribapen xehea eskain dezakegu**.

Aurreko urteekin erkatuta egitasmoak duen aurrerapen-egoera dela-eta, azpimarra dezakegu ugariak izan direla egikaritze-txostenen atal honetan informazioa eman diguten onuradunak; horrek 156 proiektu baino gehiagotan emaitzak aurreratzeko aukera ematen digu, hau da, Izartu ekimenaren pean finantzatutako jarduketa guztien ia erdian.

4.2.1. Lurralde integrazioa, irisgarritasuna eta hiri-kohesioa

Helburu honetan sartutako proiektuek aurrerapen handia izan dute 2002 ekitaldiko datuekin erkatzen baditugu. Aurreko urtean, helburu horretan sartutako jarduketaren %10ean baizik ez ziren emaitzak ikusten, eta 2003 ekitaldian, berriz, proiektuen %60an ikusten dira lorpenak. Bestalde, metatutako aurrerapenari dagokionez, oraindik egiteke gelditzen dira inbertsioaren erdia baino gehiago eta egitekoen bi heren.

2003. urtean, helburu honetan sartutako proiektuen tipologiaari begiratuta, aurrerapen handienak irisgarritasunaren eta komunikazioen hobekuntzari lotutako jarduketetan erregistratu dira (sarbide mekaniko, oinezkoentzako sarbide eta ibilgailuentzako sarbide gehiago, galtzadak oinezkoentzat jartzea...), eta, halaber, hiriaren itxura hobetzeko jarduketetan eta inguruko auzoetako eta bizitoki-guneetako azpiegituren dotazioan. Gauzak horrela, azpimarragarriak dira honakoak: eremu publikoko 13.750 m² inguru gaitzea, bideetan 14 km inguru hobetzea, eta 3.000 m³-tik gora sarbide berritan, oinezkoentzakoak eta ibilgailuentzakoak kontuan hartuta.


18 grafikoa: Lurralde integrazioa. Aurrerapena jarduketa-tipologiaren arabera. 2001-2003.

Hiri-bilbearekin dagoen komunikazioa hobetzea: bideak birgaitzea eta bide eta oinezkoentzako sarbide berriak sortzea.

Irisgarritasuna hobetzeko hiri-azpiegiturak jartzea: eskailera mekanikoak, galtzadak oinezkoentzat uztea, irisgarritasun-planak prestatzea.


Periferiako auzoetan zenbait gun e libre uztea eta ekipamenduak jartzea garapen komunitarioa bultzatzeko.

Periferiako auzoetan eta landa-eremuko guneeetan hiri-irudia hobetzea: hiri-altzariak eta aparkalekuak jartzea, industria-enpresak lekuz aldatzea...



Eskualdeka aurrerapena ezberdina izan da, baina helburu honetan parte hartzen duten eskualde ia guztiek areagotu dituzte helburu honen baitan egindako jarduketak. Grafikoa ikus daitekeen moduan, atzeratuenak *Ekialdea* (Errenteria eta Pasaiaiko udalerrriak), *Ezkerraldea* (Alonsotegi, Urtuella eta Portugalete San Roke) eta *Kantauri Arabarra* (Laudio) izan dira.

19 grafikoa: Lurralde integrazioa. Aurrerapena lurraldeka eta eskualdeka. 2001-2003.




Aurreratuen dauden udalerrien artean, eta jarduketaren tipologiaren arabera, emaitza hauek azpimarra daitezke:

- o Komunikazioen hobekuntza:
 - **Karrantzan**, udalerrriaren inguruko auzoetara doazen sarbideetan 14 km hobetu dira; hori horrela, 1.000 pertsonak beren bizitokiarekiko komunikazioa hobetua izan dute.
 - Soraluzen Erregetxerako sarbide berria egiten amaitu da, 4.000 m² bide. Horrek udalerrriko biztanle guztiei ekarri die onura (4.300 pertsona). Halaber, hobetu egin da Santa Anarako sarbidea eta Deba ibaiaren gaineko zubia; programatutako 1.400 m² bide egikaritu dira.
- o Irisgarritasuna:
 - **Ermuak 2003an amaitu du bere Izartu egitasmoa, eta helburu horren pean, Ongaraiko auzoetara joateko eskailera mekanikoak.** Horrela, bertan bizi diren pertsonen bizi-kalitatea hobetzeaz gain, hirigunearen erdian zegoen gehiegizko trafikoa nabarmen jaisten lagundu da eta, horrekin, aparkalekuen arazoa txikitu da eta erdialdeko merkataritza sustatu da.
 - **Mutrikun** hainbat kaletan hobekuntzak egin dira (Entzus, Burdinlan-Txirritsa eta Atxukale), irisgarritasuna areagotzeko: barandak jarri, eskailerak...
 - **Portugalete-Azetan** guztira 4.604 metro eraiki dira galtzada eta bideen artean, herriko kaleetako batean luzetarako oinezkoentzako pasealekua egokitzeko.
- o Hiri-azpiegiturak eta hobekuntzak hiriaren inguruetako auzoetan:
 - Berriz ere, Soraluzen, ekimenean parte hartu den bi urte eta erdietan eremu publikoko 5.200 m²-tik gora hobetu dira hainbat erabileratarako: egoitzaren eremua, hainbat parke eta oinezkoentzako bide udalerrriko hainbat bizitoki-arlotan.
 - **Erandiori** dagokionez, lorategiz hornitutako eremu publikoko 9.926 m² berreskuratu eta urbanizatu dira guztira, eta bidean 312 m lineal ireki dira udal kiroldegira joateko kalea luzatzeko.

4.2.2. Informazioaren eta Komunikazioen Teknologia Berriak sartzea


Helburu honetan ikusten da, hain zuzen, aurrerapen txikiena inbertsioei eta egindakoei dagokienez. Nolabaiteko aurrerapena izan duten proiektuek lotura dute Informazioaren eta Komunikazioen Teknologia Berrietan prestatzeko ikastaroekin eta horretarako egokitutako ikasgela edo zentroetako jarduketekin.

20 grafikoa: Informazioaren eta Komunikazioen Teknologia Berriak. Aurrerapena jarduketa-tipologiaren arabera. 2001-2003.



Datuak aztertuta, ikusten dugu arrazoia dela aurreneko urte hauetan udalerrri gutxik izan dituztela emaitzak epe honetan, aurrerapenak eskualdeka adierazten dituen grafikoan ikus dezakegun moduan. Helburu honetan sartutako 14 proiektuetatik soilik heren batek ditu emaitza nabarmenak. Gainontzeko onuradunentzako egikaritze-aurreikuspenak datozen urte-ekitaldietan kokatzen dira.

21 grafikoa: Informazioaren eta Komunikazioen Teknologia Berriak. Aurrerapena lurraldeka eta eskualdeka. 2001-2003.



Udalerrri aurreratuenen artean, eta jarduketaren tipologiaren arabera, honako emaitza hauek azpimarra daitezke:

- o Prestakuntza Informazioaren eta Komunikazioen Teknologia Berrietan:
 - **Basauriko** udalerriak guztira lau prestakuntza eta enplegu ikastaro eskaini ditu. 60 pertsona joan dira ikastaro horietara (ekintzaileak, langabetuak eta langileak), enplegua lortzeko aukera edo beren kualifikazioa hobetzeko asmoarekin.
- o Informazioaren eta Komunikazioen Teknologia Berrien erabilera eta sustapenerako eremuak eta ekipamenduak:
 - **Mungian** Katetxe eraikin zaharra birgaitzeko jarduketa amaitu da; 100 m² inguru berreskuratu dira teknologia berriak eta energia berriztagarriak sustatzeko eremu publiko bat bertan kokatzeko.
 - **Barakaldo Gurutzetak** epealdi honetan Interneten ibiltzeko lau zentro publiko jarri ditu biztanleen esku epealdi honetan, eta gaur egun Informazioaren Gizarteko lanabes berrien berri emateko eta horietan trebatzeko jarduketak diseinatzen ari dira. Jarduketa horien hartzaileak biztanleriako hainbat kolektibo dira.

Beste emaitza batzuen artean, azpimarratu behar da **Mendaron**, 2002. urteaz geroztik, etxebizitza guztietan banda zabalaren bidez sarean sartzeko aukera dutela. Guztira 1.100 biztanlek erabili dute. **Amurrión**, udalerriko teknologia berrien ikasgelari lotuta lanpostu bat sortu da, lanaldi partzialekoa.


4.2.3. Ingurumena eta andeatutako inguruak berreskuratzea:

Helburu honetan aurrerapena askoz ere handiagoa da egindakoak kontuan hartzen baditugu 2001-2003 epealdian egikaritutako inbertsioa kontuan hartzen badugu baino. Horren azalpena helburuak bere baitan hainbat motatako proiektuak hartzen dituela da, eta garapen handiagoa gertatu da kostu txikiagoa duten jarduketetan inbertsio xedeman askoz ere handiagoa duten "makroproiektu"etan baino.

Proiekturik aurreratuenak lotuta daude hornidura eta zerbitzu sareen irizpide "ekologiko"ez egindako hobekuntzekin eta ingurumena gozatzeko eta kontzientziazio ekologikoa sustatzeko eremuak berreskuratu eta egokitzearekin. Aurrerapen txikiagoa


erakusten dute munta handiagoko proiektuek, hala nola: ibaiak eta badia-inguruak lehenera ekartzea, bizitoki eta industria erabilerak berrantolatzea eta enpresak lekuz aldatzea, industri aurriak eraisteari lotutako hirigintza-jarduketak. **Helburu honen pean emaitza nagusi gisa honakoa erregistratzen da: 96.000 m² birgaitu eta urbanizatu, bai natur eremuetan baita hiriko esparruetan ere; 23.000 m lineal hornidura sare berrietan; 2.000 m³ inguru ibai-ibilguetan lehengoratuta, eta lau natur paraje berreskuratua eta egokituak.**

22 grafikoa: Ingurumena. Aurrerapena jarduketaren tipologiaren arabera. 2001-2003.



Helburu honetan sartutako proiektuak dituzten onuradun ia guztiek izan dute aurrerapenen bat, eskualdeka erakutsitako grafikoan ikus dezakegun moduan. *Bilbao*, *Durangaldea*, *Bidasoa Beherea*, *Enkarterriak* eta *Goierri* dira eskualderik aurreratuenak beren ingurumen-helburuen lorpenean.

23 grafikoa: Ingurumena. Aurrerapena lurraldeka eta eskualdeka. 2001-2003.



Helburu honetan hainbat proiekturen bidez parte hartzen zuten onuradunen kopuru handiaren emaitzarik azpimarragarriak adierazten dira atal honetan:

o Badiak eta ibai ibilguak:

- **Lezo eta Oiartzungo** Pasaiko Badia saneatzeko proiektuan, Oiartzun ibaiaren ibilguan 1.863 m3 lehengoratu dira, guztira lau harrobi berri dira, eta inguru horretara joateko bidea gaitu da, 3.050 metro.
- **Mungian** Oka-Butroi ibaiaren ertzean 600 metro berreskuratzea lortu da, eta 950 m²-ko azalera; hori, proiektuaren gaur egungo etenaldiaren baino lehen.

o Hornidura sareak:

- **Irunen**, Oxinbiribileko parkean hodi-biltzailea besteratzeko lanak amaitu dira. Horrek aukera eman du ekipamendu berri hau eraikitze eta inguruan dauden bizileku-auzoen hornikuntza hobetzeko.
- **Mendarok** Garagarza auzoko hornikuntza, saneamendu eta argiztapen sareei dagokien 11.500 m lineal berritzeko bi jarduketak osatu ditu; 138 etxebizitzak jaso dute horren onura zuzena.
- **Legazpiak** saneamendu sareetako 4.500 m lineal inguru hobetu ditu. Sare horiek 1.000 biztanleri baino gehiagori eskaintzen diote zerbitzua.
- **Bilbaok** erabat amaitu du **Otxarkoaga** auzoa berriz urbanizatzeko zuen egitasmoa; hori horrela, linea elektrikoko 1.128 metro egokitu ditu, hornidura eta saneamendu sareetako 1.204 metro eta 1.500 m² espaloi, eta hainbat

hobekuntza-lan egin ditu energiaren eraginkortasunari dagokionez, hala nola, 32 luminaria berri...

- **Karrantzan**, ur-banaketan eta saneamendu-sarean ia 2 km-tan egindako hobetze-lanek udalerriko bizitoki-auzoetan bizi diren 400 egoiliarrei ekarri die onura.
- **Mungiak** 44 luminaria ipini ditu Txirro Bidea, Billela, Elgezabal eta Llona auzoen inguruan. Inguru horietan 1.000 pertsonatik gora bizi dira.

o Inguru eta paraje naturalak:

- **Ermuak** amaitu du Izelaieta kaleko atzeko baratzak hartzen, lorategi modura eta inguruneaz goatzeko gune gisa erabiltzeko.
- **Alonsotegik** Azordoiaga guneko 250 m² paraje berreskuratu ditu.
- **Trapagak** guztira 22.000 m² egokitu ditu "El Barranco" inguruan aisialdiko berdeguneak eta pasealekuak sortzeko.
- **Mungiak** 4 paraje gaitu eta egokitu ditu.
- **Tolosak** 700 m²-tik gora berreskuratu ditu Oria ibaiaren inguruan.
- **Karrantzan** 210 m²-ko azalera urbanizatu da Pozalaguako Kobazuloen sarbidea eta harrera hobetzeko.

o Kontzientziazio ekologikorako jarduketak (ekipamenduak eta ikastea):

- **Erretereriak** Natura Ezagutzeko Zentroa eraikitzen amaitu du. 120.659 m² egokitu ditu Aramendi parkean, 460 m ibilbide egin ditu eta 28.000 m² berreskuratu ditu eremu publikoan.
- Gernikako egitasmoak IDIGA industrialde zaharraren inguruan 1.200 m² berreskuratu ditu Garapen Iraunkorreko Zentro gisa.
- **Zegamak** Andutza Basoa Ezagutzeko Zentroa eraikitzen amaitu du, Aizkorriko parke naturalean. Dagoeneko 115 ikustaldi gidatu eta hezitzaile egin dira urtean, eta 1.000 bisitaritik gora izan ditu.
- **Legazpik** Burdinaren Euskal Museoa sortu du, eta horretarako 700 m²-tik gora berreskuratu ditu guztira, eta aparkalekuak egin ditu bisitariak etortzea errazteko.
- **Amurrion**, bestalde, Pikazako Errota eta El Salvador eraikina gaiberritzeko prestakuntza-lantegiak egin dira.


- o Hobekuntzak hiri ingurumenean, leku-aldatzeak, aurriak eraistea, parkeak:
 - **Ermuan** Zubi Ondo enpresa lekuz aldatu eta "Zearreko Buelta" eraikinean kokatu da. Horrek aukera amen du enpresa-proiektu horretako inbertsioa eta plantilla handitzeko. Halaber, "Cuchillería del Norte" industriaren leku-aldaketa ere amaitu da, eta eraikina ekipamendu erkide gisa erabiltzeko gaiberritze proiektua egiten ari dira.
 - **Donostia Altzak** ekin dio Harri Berri auzoan egin beharreko hirigintza-berrikuntzei eta ingurumen-hobekuntzari. Hori horrela, 3.000 m² egokitu ditu lur-mailako aparkalekuetarako, 8.805 m² urbanizatu ditu eta hornikuntza-sareetan 613 m lineal berritu ditu.
 - **Arrigorriagan**, jendea pilatzen den eremu publikoei buruzko proiektuan parkeak, plazak eta lurpeko aparkalekuak eraikitzea dago sartuta. Proiektu horren bitartez, inguru horretan ingurumena %73 hobetzea lortu da, eremu publikoan 20.000 m² erabiliz. Horrek 3.616 biztanleri ekarri dio onura.
 - **Basaurik** amaitu du Hiltegiaren Ibarra urbanizatzen. Andeatutako inguru bateko eremu publikoko 11.000 m² egokituz -750 biztanleri eta 220 etxebizitzari eragiten dio-, hirigunearekin lotzen den pasealekua egin du, aparkalekuz hornitua.
 - **Bilbao Zaharrean**, Mesedeetako Moilari dagokion galtzada eta espaloian 6.570 m² gaiberritu dira.

4.2.4. Ekonomi jarduera sustatzea: enplegua eta enpresa berriak

Aurrekoan bezala, egindakoei dagokienez helburu honetan izandako aurrerapena egikaritutako gastua baino handiagoa da, hain zuzen ere inbertsioan pisu espezifikoki handiagoa duten jarduketetan aurrerapen txikiagoa izan delako. Aurrerapenik handiena hauek izan dute: merkataritza-sektorea babesteko proiektuek eta ekonomi jarduerarako azalera egokitzeak. Bestalde, proiektu gehienak enplegua sustatzeko eta enpresak sortzeko udal zerbitzu eta egitasmoetan sartzen dira, eta horietan aurreratzea mantsoagoa da.


Emaitzak, bestalde, azpimarragarriak izan dira: 20 egitasmo enpleguan laguntzeko eta orientatzeko; 15 prestakuntza-ikastaro eta 170 parte-hartzaile; gizarte-ekonomiako enpresa berriak eta, hirugarren sektorean, 17 merkataritza-lokalek jaso dute inbertsiorako eta gaiberritzeko laguntza; 1.700 m² industri erabilerarako...

24 grafikoa: Ekonomi jarduera. Aurrerapena, jarduketa-motaren arabera. 2001-2003.



Lurraldeka, partaidetza oso ezberdina izan da: udalerri batzuetan helburua lortu da; besteetan, berriz, proiektuak oraindik hastear daude.

25 grafikoa: Ekonomi jarduera. Aurrerapena lurraldeka eta eskualdeka. 2001-2003.



Enpleguaren eta ekonomi jardueraren gain emaitza ugari ikusten dira (helburu honetan sartutako proiektuen %60tan baino gehiagotan), eta behean zehazten ditugu:

- o Ekonomi jarduera garatzeko azpiegiturak:
 - **Zegamak** amaitu du Intxaustiko Arloko industri azalera egokitzen (1.716 m²). Bi pabilioi berri egin ditu, eta zenbait enpresak interes handia erakutsi dute.
 - **Karrantzan**, 2003an egindako aurrerapen nagusia enpresa mintegi berriaren gaur egungo eremua handitzeko beharra izan da, kontuan hartuta udalerrarentzat interesekoak diren hainbat proiektu bertan jartzeko aukerak.

- o Merkataritza-jarduera babesteko jarduketak:
 - **Bilbao Zaharrak**, merkataritza-lokalak gaiberritzeko bere egitasmoaren bitartez, merkataritza-azalera 1.700 m² gaiberritzea lortu du. Azalera hori inguru horretan kokaturiko 17 lokali dagokie.
 - **Trapagak**, merkataritza sektorea eta hirugarren sektorea sustatuz eta babestuz, inbertsioetan laguntzeko plan baten bitartez, udalerriko bi enpresari ekarri dio onura.
- o Enpresa berriak sustatzea:
 - **Zegaman** aurreko tradiziozko oihalgintza enpresa bat sortu da 2002an eman zen prestakuntza-lantegi bateko partaideen artean.
